

HERRITARREN PARTAIDETZA PROGRAMA 2024-2027





HERRITARREN PARTAIDETZA PROGRAMA 2024-2027

AURKEZPENA

Gipuzkoa hobea eraikitzen laguntzeko ahalduntze tresna da esku artean dugun programa hau. Gipuzkoako Aldundiak datozen lau urteetan, lurraldeko beste erakunde eta eragileekin elkarlanean, partaidetzaren eta ekintza komunitarioaren esparruak jorratzeko dauzkagun erronka, helburuak eta lan-ildoak biltzen dituen. Lan sakon eta partekatutako baten emaitza da.

Programa hainbat urtetako ahalegin, saiakera eta ikaspenen fruitua da eta bertan jasotako eduki eta prozedurak lerrokatu egin ditugu Gipuzkoako Foru Aldundiak 2023-2027 legealdirako onartu berri duen Plan Estrategikoarekin. Programa sendoa eta zabala izanik ere, aldi berean zehatza ere bada, behar eta eskaera konkretuei erantzuten dielako. Horregatik, bai Aldundiaren beraren garapenari dagokionez eta baita planteatzen duen bide-orri gisa ere, potentzial eta indar handiko programa da.

Hori guztia ez da egun batetik bestera egiten den lorpena. Gure lurraldean azken urteetan garatu ahal izan den kultura politikoaren eta lankidetzazko gobernatzaren emaitza ere bada. Halaber, Gipuzkoak datozen urteei begira, lankidetzaren, partaidetzaren eta ekintza komunitarioaren sustapenean egin nahi duen jauzi berria eragitera dator. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoaren zutabetako bat da, hain zuzen, lurralde demokratiko, bidezko eta arduratsu bat eraikitzea, eta programa honek bide horretan bere aletxoak jarri nahi ditu.

Prozesu emankor eta sakon baten emaitza izan da eta berau osatzeko lan finean parte hartu duzuen departamentu eta zuzendaritzetako kide guztiei eskerrak eman nahi dizkizue. Eskertu nahi ditut, baita ere, Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluko kideak, programan egin dituzten ekarpenengatik eta, azkenik, prozesua gidatzeaz arduratu zireten Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusiaren arduradun eta lantaldeko kideak.

Programa zehaztuta, etaparik interesgarriena eta mamitsuena hasten da orain; bidea urratzea. Eta bide hori oinez, oin bat bestearen aurrean jarrita, egiten da. Elkarrekin egin nahi dugu. Lurraldeko eragileekin batera.

**Ekin diezaiozun
bada bideari!**

IRUNE BERASALUZE
Gobernanzako foru diputatua





SARRERA	8
Aldaketaren beharra	9
Lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailea	10
Ekintza Komunitarioa eta Herritarren Partaidetza	12
2023-2027 Legegintzaldia	14
HERRITARREN PARTAIDETZA PROGRAMA 2024-2027	16
Erreferentzia nagusiak	18
Ezaugarri nagusiak eta balioak	19
Egitura	21
Iparra eta bi zutabeak	22
Helburuak	23
Helburuak eta lan-ildoak	26
Lan-ildoak garatzeko ekintzak	39
Aldundiko departamentuek proposatutako partaidetza proiektuak	47
Programaren ebaluazioa eta kontu-ematea	51
LEGEGINTZALDIKO EGUTEGIA ETA LEHENTASUN MAILAK	54

SARRERA



ALDAKETAREN BEHARRA

Legegintzaldi honetan lehentasun bezala jasotzen da **herritarren partaidetzaren bidez egungo politikaren eta administrazio publikoen izaera eta kultura aldatzen joatea eta herritarren ahotsa politika publikoetan txertatzea.**

Era berean, **komunitate demokratikoen eraikuntzan ekarpena egin nahi du ekintza komunitarioaren sustapenaren bidez.**

Izan ere, bizi dugun errealitate politiko, sozial eta ekonomiko konplexu, aldakor, dinamiko eta anitzak agerian uzten du **administrazio publikoek gaitasun mugatua** dutela gizartearen arazo eta eskaerei erantzun eraginkorrak eskaintzeko, eta komunitate demokratiko sendoen eraikuntza ahalbidetzeko.

LANKIDETZAZKO GOBERNANTZA AURRE-HARTZAILEA

Gobernantza forma berriak irekiagoak, gardenagoak eta lankidetzan oinarrituak dira. Balio publikoa eta soziala sortzeko tresna bihurtu dira, politika publikoak diseinatzen, kudeatzen eta legitimatzen laguntzen baitute, eta, modu horretan, gizartearen aniztasuna eta gizarte zibilaren papera indartzen baitute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Etorkizuna Eraikiz estrategiaren bitartez **lankidetzazko gobernantzan oinarritutako erakunde aurre-hartzailea, ekintzailea eta eraginkor baten alde** lan egin nahi du. Aldundiaren lidergoan oinarrituta, erakunde publikoekin, gizarte zibilaren eta herritarrekin batera, politika publikoak eta haien ekosistemak berrikuntzatik indartzeko.

Zentzu horretan, **Herritarren Partaidetza Programa tresna baliagarria** da Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailearen ereduak sakontzen jarrai dezan.

- Batetik, **Aldundiaren lidergoan oinarrituta**, fokua jartzen baitu erakunde publikoekin, gizarte zibilarekin eta herritarrekin batera, politika publikoak aberastu, elkarrekin sortu, eta ebaluatzen jarraitzeko.
- Bestetik, **komunitatea eraikitzea oinarri hartuta**, fokua jartzen baitu Aldundiaren lidergoa gero eta partekatuagoa izatean, bai erakundeekin, zerbitzuekin, profesionalekin eta, bereziki, autonomia zein erantzukizuna irabazten ari diren herritar antolatuekin.

EKINTZA KOMUNITARIOA ETA HERRITARREN PARTAIDETZA

- **Ekintza Komunitarioa** dira **gizarte erronkei modu kolektiboan** heltzen dieten ekimen eta proiektu guztiak, baldin eta auzoetako eta udalerrietako **bizi baldintzak hobetzeko eta gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeko** egiten badute, herritarren inplikazioa eta protagonismoa bilatuz eta erraztuz. Komunitate sendo batek, komunitate zentzu handiagoa duenak, herritarren erantzunkidetasun maila handiagoa izatea dakar eta, horrekin, bere egunerokotasunean aurrean agertzen zaizkion erronkei eman beharreko erantzunetan rol aktiboa edukitzeko konpromisoa agertuko du.
- **Herritarren partaidetza kudeaketa publikoan sartu beharreko herritarren eskubidea da** eta parte hartze eskubide hori aitortua dute herritarrek eta arautua dago nazioartean, Estatu mailan (Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikuluan) zein tokiko araudian: Euskadiko toki-erakundeei buruzko Legean (67-82 artikuluetan) eta, espresuki, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, Herritarren Partaidetzarako Foru Arauan. Hala, **kalitate demokratikoa izateko, botere publikoek herritarrek politika publikoetan eragiteko bideak zabaldu behar dituzte**, herritarrei politika publikoak hobetzeko aukera emanez, politiken diseinuan, exekuzioan edota ebaluazioan.

Gipuzkoako Foru Aldundia 2010ean hasi zen partaidetzaren alde lanean. Urte horretan, Herritarren Partaidetzari buruzko 2010eko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Araua onartu zen, eta, ondoren, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza sortu zen. Araudiaren ikuspegitik, Herritarren Partaidetzari buruzko **2018ko azaroaren 12ko 5/2018 Foru Araua** izan zen beste mugarri garrantzitsu bat. Foru arau horren bidez, aurrekoa aldatu zen (1/2010 Foru Araua).

Jarraian aurkezten dugun hau **hirugarren Herritarren Partaidetza Programa da, eta 2019-2023 legegintzaldiko programaren ebaluazioan jasotako etorkizunerako-gako nagusiak** hartzen ditu oinarri. Laburpen gisa jaso ditugu **gako nagusietako batzuk**:

- Ekintza komunitarioa lurraldean sustatzeko **planifikazio partekatua eta zeharkakoa** egitea, Aldundian erroto eta eragileekin elkarlanean aritzea.
- Gai esanguratsuetan **partaidetza bideak eta tresnak egonkortzea**, eta horretarako, dagokion araudia, markoa, aurrekontua eta giza baliabideak izatea.
- Herritarren partaidetzarako eta ekintza komunitariorako eskaintzen diren **baliabideak** handitzea, horien inpaktua neurtuz.
- Udalekin elkarlanean **erakundeak prestatzea** herritarren partaidetza ahalbidetzeko eta ekintza komunitarioa sustatzeko, adostasun politikoak landuz.
- **Herri txikietarako berariazko estrategia** lantzea.
- Lurraldeko **elkartegintzaren lana** ahalbidetu eta erakundeekin duten hartu-emana handitzea.
- **Ebaluazio** jarraia egitea eta **hobekuntza jarraia** ezartzea.
- **Gipuzkoako Herritarren Eskola Irekia** indartu eta zabaltzea.
- **Komunikazio** estrategia indartzea.

2023-2027 LEGEGINTZALDIA

Etorkizunari aurre egiteko **2023-2027 legealdi berriak erabakitasunez heldu nahi die sortzen ari diren erronkei eta beharrezko eraldaketei**. Izan ere, krisiek eta gatazka globalek zeharkatutako errealitate aldakorrei erantzun behar dien legealdia da eta gainera, funtsezko balioen inguruan adostasunak eraikitzeke premia du, hala nola aukera-berdintasunaren, aniztasunaren defentsaren eta herritarren bizi-kalitatearen babes integralaren inguruan. Testuinguru konplexu honetan, onartu da Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoa.

Plan horretatik abiatuta, **berrikuntza-ziklo berri bat ireki da politikaren eta politika publikoen kudeaketan**, honako hauek oinarri hartuta: Etorkizuna Eraikiz ekimenaren ikuspegi sistemikoa, Foru Aldundiaren barruko aldaketa kulturala, herritarren parte-hartzea sustatzea, maila anitzeko gobernantza, ebaluazioa indartzea eta, azkenik, komunikazioa eta sozializazioa.

2024-2027 Plan Estrategikoak funtsezko 4 zutabe zehazten ditu, eta **2024-2027 Herritarren Partaidetza Programak planean ezarritako helburuak eta ekintza-lerroak garatzen laguntzen du**, zehazki, lotura estua du, alde batetik, pertsona erdigunean jartzen duen zutabearekin, eta, bestetik, estrategia **komunitatea eraikitzean** oinarritzen den zutabearekin.

Plan Estrategikoaren I. zutabea, *Pertsonen ongizatea, osasuna, babesa eta berdintasuna*: parte-hartze aktiboak eta ekintza komunitarioak pertsonen osasuna eta ongizatea hobeto ditzakete, bizimodu osasungarriak, baliabideetarako sarbidea eta gizarte-laguntzako sareak sustatzen dituen ingurunea eskaintzen baitute. Era berean, gizabanakoen ongizateak eta osasunak herritarren parte-hartzea eta ekintza komunitarioa indartu ditzakete, pertsonak beren komunitateetan laguntzeko eta parte hartzeko duten gaitasuna handitzen baitute.

II. zutabea, *Komunitate demokratikoa, arduratsua, jasangarria eta bizia*: komunitatea indartzea eta herritarren parte-hartzea, bai eta ekintza komunitarioa ere, oso lotuta daude; izan ere, denak ahalduz egitearen, gardentasunaren, lankidetzaren eta balio zibikoen sustapenaren printzipioetan oinarritzen dira. Elkarrekin, gizarte-ehuna indartzen dute, bizi-kalitatea hobetzen dute eta komunitatearen garapen jasangarri eta demokratikoari laguntzen diote.

Bestalde, Herritarren Partaidetza Programak Plan Estrategikoaren **zeharkako politikekin ere** badu lotura estua (genero-berdintasuna, hizkuntza berdintasuna eta Garapen Jasangarriko Helburuak), izan ere, Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzako Zerbitzuak dagoeneko bere lan egiteko moduan txertatuta dituen ardatzak dira, horregatik, GFaren 2024-2027 Herritarren Partaidetza Programak bere gain hartzen eta lantzen ditu eremu horiek.

HERRITARREN PARTAIDETZA PROGRAMA 2024-2027

ERREFERENTZIA NAGUSIAK



GFAREN 2024-2027 Herritarren Partaidetza Programak bere egituratzean **bi erreferentzia nagusi** hartu ditu kontuan:

- **Herritarren Partaidetzarako 5/2018 azaroaren 12ko Foru Arauaren** agindua bera, zeinetan programa eginbehar moduan jasotzen den.
- **Ekintza komunitarioa:** "Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako **marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa.**"

Ekintza komunitarioa eta herritarren partaidetza txanpon beraren bi aldeak izango balira bezala ikus daitezke: **kalitate demokratikoa hobetzea dute iparra.** Herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa esku hartzea eskatzen duten bi eremu kontzeptual dira, aldi berean uztartu beharrekoak demokrazia indartu nahi badugu. Gizarte zibil indartsu eta antolatua aukera bat da herritarrek partaidetza handiagoa izateko. Komunitate indartsua ez duen gizarte batean, herritarren partaidetzak eraginkortasuna galtzen du. Kultura demokratikoaren oinarria dira herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa.

EZAUGARRI NAGUSIAK ETA BALIOAK

Aurreko legegintzaldiko Herritarren Partaidetza Programan hasitako bideari jarraituz, salto kualitatibo bat ematen lagunduko diguten 2024-2027 Herritarren Partaidetza Programaren **ezaugarri propioak** eta **balioak** jasotzen dira jarraian. Orain arteko egiteko moduei balioa ematearekin batera, egunerokoan eragin praktikoa duten ezaugarri eta balioak dira. Batetik, gure izaera edo marka jasotzen dute, eta programa hau gauzatzeko eta urteko kudeaketa planak zehazteko inspiratzaileak izango dira. Bestetik, Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren ezaugarri berezituak eta balioak definitzeak lehentasunak ezartzen lagundu digu.

- **Gertutasuna eta konfiantza. Egiteko moduak zaintzea da gure ezaugarrietako bat.** Partaidetzaren ikuspegitik, zer egiten dugun bezain garrantzitsua da nola egiten dugun. Horregatik, egiteko moduei arreta berezia eskaini nahi diegu gure Zerbitzutik. Udaletara bertaraten gara eta dituzten beharrak eta kezkak entzuten ditugu; Gipuzkoako lurraldeko beste udalen egoeraren berri ematen diegu, erronka espezifikoak baitituzte, baina baita partekatuak ere, eta, azken batean, udal mailan herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa gauzatzeko baliabideak eskaintzen dizkiegu Foru Aldunditik.
- **Irekitasuna eta malgutasuna. Malgutasuna eta egokitzapen gaitasuna izatea bilatzen dugu.** 2024-2027 programak, malgua eta eraginkorra izan nahi du, aldaketaren teoriei erantzuteko baliabide praktikoa eta eguneroko kudeaketarako irizpideak emango dituena. Jarraitutasunaren eta irekitasunaren arteko oreka bilatu nahi du. Gizarte eraldaketaren baitan administrazio eta tokiko gobernuek errealitate konplexu, dinamiko eta aniztetera egokitu beharra dugu; herritarrentzat aritzeaz gain, herritarrekin ere egin behar dugu bidea. Beraz, aurre-hartzailea eta egokitzapen gaitasuna izango duen programa irekia, malgua eta eraginkorra izan nahi du eskuartean duzuen honek.

- **Balio erantsia.** Gure beste ezaugarrietako bat da **ikasten duen erakundea eta herritarren partaidetzaren kalitatea hobetzen duen erakundea izaten saiatzea.** Funtsezko alderdi zailenetako bat 2019-2023 Programan jasotakoak ebaluatzea eta lehenespen ariketa egitea izan da. Gure balio erantsiari etekina atera nahian, programa hau diseinatzean eta gauzatzean, partaidetzaren kalitatea hobetzean jarri dugu arreta: eskaini izan ditugun baliabide eta kanalen ebaluazioa egin, jarraipena izango dutenetan hobekuntzak txertatu, itzulera egin eta, berriz ere, ebaluazioa gauzatu.
- **Hartu-emanak.** Bi norabidetan aritu behar dugu lanean; baliabide eta kanalak eskainiz eta besteengandik ikasitako hori barneratuz. Horrek esan nahi du programa honetan bidea hartu-emanen egin behar dugula, gure ekosistema ondo ezagutuz eta koordinatuz, ikasten duen erakundea izan gaitezen.
- **Koherentzia eta bizipoza izatea. Koherentzia:** Gipuzkoako Foru Aldundiari begira lana indartzea eta zeharkakoa den partaidetzari zentraltasuna ematea izango da programa berriaren beste ezaugarri nagusi bat. Izan ere, Foru Aldundian partaidetzaren kultura kanpora zabaltzeko, erakundearen barruan eman behar ditugu urratsak lehentasunez, koherentziarako bide nagusi gisa ikusten baitugu. **Bizipoza:** maite dugu gure lana eta hobeto egingo dugu partaidetzaren kulturak eskatzen duen erritmoari entzunez eta elkar zainduz.

EGITURA

Dokumentu hau **bi zutabetan, 5 helburutan eta 15 lan-ildotan** egituratzen da. Lehen mailan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2023-2027 legealdirako Plan Estrategikoaren markoan zehazten diren 5 helburu identifikatu ditugu, hiru helburu estrategiko eta bi zeharkako. Bigarren mailan, helburu horietako bakoitzerako lan-ildoak zehaztu dira. Zehazki, 15 lan-ildo jasotzen ditu. Hirugarren mailan, lan-ildo horiek zehazten dituzten eta 2023-2027 legealdian garatu nahi diren **ekintzak** biltzen dira.

Horrez gain, programa honen berezko ezaugarrietako bat **ikuspegi irekia** mantentzea izanik eta errealitate konplexu eta aldakorretari aurre-hartzeko eta egokitzeko aukera bermatzeko, programa indarren dagoen urte bakoitzaren hasieran **urteroko kudeaketa planak onartuko dira** eta bertan programa honetan jasotzen diren ekintzen garapena ahalbidetuko duten **ekintza zehatzak ere** jasoko dira.

Halaber, 2024-2027 programa Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela eta lankidetzan oinarritzen dela kontuan hartuta, Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak bultzatu beharreko ekintzak ez ezik, **GFAko departamentu, zuzendaritza edota zerbitzu bakoitzak gauzatzea aurreikusitako herritarren partaidetza-prozesuak edota ekintza komunitarioa sustatzea helburu duten proiektu edo egitasmoak ere garatuko dira.** Hala, Aldundiko beste departamentu-zuzendaritza-zerbitzuetatik eratortzen diren egitasmo/ekintza horiek garatzeko, ekintza berezitu bat jaso da programa honetan; zehazki, 2.3.2. ekintza. Partaidetza-prozesu horiek taula batean jaso dira programa honetan eta dagozkien urteko kudeaketa planetan garatuko dira.

IPARRA ETA BI ZUTABEAK

Partaidetza programa honen iparra **komunitateen eta erakundeen kalitate demokratikoan sakontzea da** eta, horretarako, **bi zutabe** ditu:

1. Ekintza komunitarioa.

Zer bilatzen dugu?

Herritarren inplikazioa eta protagonismoa bilatu eta erraztea, modu kolektiboan auzo, udalerrri eta lurraldeko bizi baldintzak hobetzeko, eta gizarte inklusibo eta kohesionatuagoa eraikitzeko.

2. Herritarren partaidetza.

Zer bilatzen dugu?.

Batetik, ekintza instituzionalaren kalitate demokratikoan sakontzea; kultura politiko demokratikoan sakontzea eta hura indartzea. Bestetik, administrazioaren egiteko eta erlazionatzeko moduak barnetik eraldatzea, herritarrek erabakietan parte hartzeko duten eskubidea aitortuta eta bermatuta, eta, horretarako, sistema egituratuta.

HELBURUAK

Partaidetza Programa honek herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa gauzatzeko **3 helburu estrategiko eta 2 zeharkako helburu** zehazten ditu.

HELBURU ESTRATEGIKOAK

1 EKINTZA
KOMUNITARIOA

2 ERAKUNDEAK
PRESTATZEA

3 PARTAIDETZAREN
KALITATEA

ZEHARKAKO HELBURUAK

4 TREBAKUNTZA

5 KOMUNIKAZIOA

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Ekintza komunitarioan eta Herritarren parte-hartzean oinarrituz, 2024-2027 Herritarren Partaidetza Programa Aldundiko barne eta kanpo eragileei, Gipuzkoako udalei, elkarteei eta herritar antolatu eta ez-antolatuei zuzenduta dago. Horrela, programari dagokionez, **3 helburu estrategiko**, definitu dira, bakoitza eremu bati lotuta dagoelarik:

1

Lurraldean Ekintza Komunitarioa indartzea, Aldundiaren eta toki erakundeen erraztaile rola sustatuz.

2

Erakundeak prestatzea eta lurraldean praktika parte hartzaileak zabaltzea: "kanporantz ahalik eta erlazionalenak izateko barruko antolaketa birpentsatzea" eta "entzunda erabakitzea eta erabakitzeko entzutea".

3

Partaidetzaren kalitatean sakontzea, ondorengo printzipioetan sakonduz:

- Unibertsaltasuna: emakume eta gizonezkoek, berdintasun-baldintzetan parte hartzea;
- Inklusioa: homogeneousotasuna gainditzeko era guztietako ahotsak kontuan hartzea, libreki eta segurtasunez entzuteko mekanismoak txertatzea, eta partaidetzarako sarbidea erraztea, pertsonen ezaugarri indibidual eta sozialetarako bitarteko egokiekin;
- Gardentasuna eta etika publikoa.

ZEHARKAKO HELBURUAK

Era berean, **zeharkako 2 helburu** zehaztu dira, programa honetako ekintza eta jarduera guztiak zeharkatzen dituzten helburuak, alegia. Zeharkako helburuek hainbat alderdi jorratzen dituzte, eta herritarren parte-hartzea kudeaketa publikoaren maila eta arlo guztietan modu eraginkorrean txertatzea dute helburu, demokrazia indartuz eta komunitateko bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duela bermatuz:

4

Trebakuntza eskaintzea, Gipuzkoako Eskola Irekiaren bidez (GEI) partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa sustatzeko. Formakuntza, bai Foru Aldundiari begira eta bai kanpo eragileei begira ere, funtsezkotzat hartzen dugu kultura parte-hartzailea sustatzeko, eskubideen eta betebeharren gainean heziz, komunitatea erabakiak hartzeko ahaldunduz eta balio zibikoak sustatuz.

5

Komunikazioa eta dibulgazioa egitea, partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa sustatzeko. Herritarren parte-hartze esanguratsua sustatzeko, komunitate informatuagoak, inklusiboagoak eta parte-hartzaileagoak eraikitzeke eta demokrazia indartzeko. Komunikazioa **ikuspegi ireki** batetik ulertu behar da, hau da, jarrera proaktiboa izan behar dugu programa eguneratzea eska dezaketan aldaketan aurrean.

HELBURUAK ETA LAN-ILDOAK

Partaidetza programa honek herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa gauzatzeko, **ezarritako helburu bakoitzari lotutako 15 lan-ildo zehazten ditu.**

HELBURUAK	LAN-ILDOAK
1 EKINTZA KOMUNITARIOA	1.1. Elkarteen proiektuak eta herritar antolatuen gaitasunak indartzea.
	1.2. Antolatu gabeko herritarrekin eta herritarrentzat lan egitea.
	1.3. Ekintza komunitarioaren markoa garatzen jarraitzea eta toki mailan garatzeko estrategiak martxan jartzea.
	1.4. Politika sektorialetan ikuspegi komunitarioa txertatzea eta marko zehatzak sortzea.
	1.5. Erakunde barruko eta erakunde arteko aliantzak koproduzitzea eta eratzea.
2 ERAKUNDEAK PRESTATZEA	2.1. Aldundiko partaidetzaren araudi-markoa garatzen jarraitzea.
	2.2. Herritarren parte hartzea ahalbidetzeko: prozedura, prozesu, organo, foro eta jarduerak berrikusi eta berme-sistemak diseinatzea.
	2.3. Aldundiko politika publikoetan herritarren partaidetza praktikak ugaritzea.
	2.4. Lurraldeko udalekin batera, udaletan partaidetza egituratzeko lan egitea.

HELBURUAK	LAN-ILDOAK
3 PARTAIETZAREN KALITATEA	3.1. Lurraldeko kalitate demokratikoa indartzeko lan egitea.
	3.2. Aliantza eta sareak zaintzea, indartzea eta berriak eraikitzea, kalitate demokratikoa hobetzeko.
4 TREBAKUNTZA	4.1. Partaidetza kulturaren sakontzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea.
	4.2. Ekintza komunitarioa sustatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea.
5 KOMUNIKAZIOA	5.1. Zuzendaritzako Komunikazio Plana egitea eta abiatzea.
	5.2. Lurraldeko esperientzia eta ezagutzak ikusgarri eta eskuragarri jartzea.

LURRALDEAN EKINTZA KOMUNITARIOA INDARTZEA, ALDUNDIAREN ETA TOKI ERAKUNDEEN ERRAZTAILE ROLA SUSTATUZ

2024-2027 Plan Estrategikoak azpimarra jartzen du komunitate demokratikoa, arduratsua, jasangarria eta bizia sendotzean. Herritarren kultura-demokratikoan eta ardura komunitarioa indartzeko lan egin nahi du; elkarlana eta parte hartzea sustatuz, gizarte ehuna indartzea du helburu.

Aldundiko Partaidetza Programak legegintzaldi honetarako apustu irmoa egin nahi du norabide horretan. Izan ere, **oinarriak ezarri nahi dira 2022. urtean udal eta erakunde ezberdinekin elkarlanean sortutako "Ekintza komunitarioa:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza publikora bideratutako marko kontzeptual, estrategiko eta operatiboa" lurreratzeko eta praktikara eramateko.

Marko horren bidez, hizkuntza eta ikuspegi partekatu bat landu da lurralderako, eta halaber: administrazio publikoak komunitatearen eraikuntzan duen ardura eta rola zehaztea lortu da, ekintza komunitarioaren politika publiko bat sortzeko **5 estrategia** eta lan-egiteko moduak birpentsatzeko **7 printzipio metodologiko** definitu dira. Era berean, udalek dituzten eginbeharrak eta Aldundiak gaiarekiko hartutako konpromisoak jaso dira.

Politika publikoetako ikuspegi komunitarioaz ari garenean herritarren protagonismoa bilatzen duten ekintza/erantzun kolektiboek ari gara. Jendeak harremanak izan eta loturak eraikitzeke duen gaitasuna indartu eta zabaltzeaz ari gara, elkarrekin haien bizitzak hobetzeko baliagarriak diren gauzak egin ditzaten sustatzeaz. Izan ere, helburu dugun gizartea, arlo indibidualean, pertsona autonomo, kontziente zein arduratsuz osatua dago; eta, arlo sozialean, konprometituta dauden norbanakoz.

1. helburua gauzatzeko, honako **5 lan-ildo** identifikatu ditugu:

1.1

Elkarteen proiektuak eta herritar antolatuen gaitasunak indartzea.

1.2

Antolatu gabeko herritarrekin eta herritarrentzat lan egitea.

1.3

Ekintza komunitarioaren markoa garatzen jarraitzea eta toki mailan garatzeko estrategiak martxan jartzea.

1.4

Politika sektorialetan ikuspegi komunitarioa txertatzea, eta marko zehatzak sortzea.

1.5

Erakunde barruko eta erakunde arteko aliantzak koproduzitzea eta eratzea.

ERAKUNDEAK PRESTATZEA ETA LURRALDEAN PRAKTIKA PARTE HARTZAILEAK ZABALTZEA

Antolakuntzako gaiak/erronkak oso presente daude eremu honetako eztabaida guztietan. Administrazio publikoan **kultura berri baten beharra** aipatzen da, lanaren antolaketa berria ekarriko duena, ez hain sektorekatua, rol teknikoak berrantolatuko dituena, eta antolakundearen barruan eta kanpoan harreman erraztaile lan gehiago egingo duena.

Aldundiak legegintzaldi honetarako dituen **barne erronkak identifikatu ditu**, nagusiki 4 arlotan bilduz: lidergo eraldatzaile eta erlazionaleko gaitasunetan sakontzea; efizientzia- eta eraginkortasun-mailak hobetzea; langileen parte hartzea areagotzea erabakiak hartzerakoan nahiz departamentuen arteko eta maila anitzeko lankidetzan; eta berrikuntza eta esperimentazioa sustatzea gobernantza aurreratuaren logikan.

Aldundiko Herritarren Partaidetzarako **Programak bi norabideetan egingo du ekarpena** erakundeak erronka berrietara norabidetzeko garaian:

- **Ikuspegi komunitarioa** ardatz izanik ondorengo galdera eginaz: nola antolatuko gara barnean, kanpoekin ahalik eta erlazionalean izateko? Eta horren arabera erakundearen zeregina birpentsatu, birbideratu, berrantolatzeko aukera eskainiko duten ekintza edo proiektuak erraztuz edo sortuz.
- Eta **Herritarren Partaidetzarako** 5/2018 Foru Arauak agintzen duen norabidean, partaidetzaren sistema instituzionala egituratzen, bertan jasotzen diren eskubide eta betebeharrak garatzeko. Alegia, "entzunda erabakitzea eta erabakitzeke entzutea".

Era berean, programa honen helburua ere bada herritarren partaidetzarako **praktikak lurraldean zabaltzea** komunitate eta erakundearen kultura demokratikoan sakontzeko.

Bigarren helburua gauzatzeko, honako **4 lan-ildo** identifikatu ditugu:

2.1

Aldundiko Partaidetzaren **araudi-markoa** garatzen jarraitzea.

2.2

Herritarren **parte hartzea ahalbidetzeko**: prozedura, prozesu, organo, foro eta jarduerak berrikusi eta berme-sistemak diseinatzea.

2.3

Aldundiko politika publikoetan **herritarren partaidetza praktikak ugaritzea**.

2.4

Lurraldeko udalekin batera, **udaletan partaidetza egituratzeko** lan egitea.

PARTAIDETZAREN KALITATEAN SAKONTZEA

Partaidetzaren kalitatean sakontzeaz ari garenean, demokrazia eta kalitate demokratikoa zaintzeaz ari gara. Kultura politiko demokratikoan sakondu nahi dugu, administrazioaren egiteko eta erlazionatzeko moduak aldatuz, herritarrek erabakietan parte hartzeko duten eskubidea aitortuta eta bermatuta.

Praktika parte hartzaileak ugaritzeaz gain, Programak fokua jarri nahi du horien kalitatea zaintzean. Lurraldeko udalekin, elkarrekin eta bestelako erakundeekin elkarlanean, egiteko moduen nolakotasunean eragin nahi du, bereziki, ondorengo **printzipioetan** arreta jarrita: unibertsaltasuna, berdintasuna, inklusioa, gardentasuna eta etika publikoa.

- Erakundeek egiten duten horretan **unibertsaltasun printzipioa** kontutan hartzeaz ari gara, besteak beste, herritar guztiek duten parte hartzeko eskubidea bermatzeaz lurralde-oreka, gizarte- eta ekonomia-aniztasuna aintzat hartuta.
- **Emakumeek eta gizonezkoek berdintasun-baldintzetan** parte hartzeko lan egitea.
- **Inklusioa:** batetik, ikuspegi intersektionala gizartean nagusi den profil jakin batek hartu ohi duen homogeneousotasun tradizionala gainditzen duten mekanismoak txertatzea (adina, generoa, arraza eta beste identitate-ardatz batzuk), ahots anitzak, libreki eta segurtasunez adieraziak entzun ahal izateko. Bestetik, partaidetzarako bitartekoetarako sarbidea erraztea pertsonen ezaugarri indibidual eta sozialetarako- gaitasun kognitibo, fisiko eta pertsonalak-bitarteko egokiekin, nahiz beren lan edo konpromiso familiarren arabera berariazko denborekin.
- **Gardentasuna eta etika publikoa:** proposatu eta erabakitako horren jarraipena gauzatu ahal izango dela bermatu behar da, kontua emateko, egiten den hori ebaluatu eta etika instituzionalarekin bat egiteko.

Hirugarren helburua gauzatzeko, honako **2 lan-ildo** identifikatu ditugu:

3.1

Lurraldeko **kalitate demokratikoa** indartzeko lan egitea.

3.2

Aliantza eta sareak zaintzea, indartzea eta berriak eraikitzea kalitate demokratikoa hobetzeko.

TREBAKUNTZA ESKAINTZEA, GIPUZKOAKO ESKOLA IREKIAREN BIDEZ (GEI) PARTAIDETZA KULTURA ETA EKINTZA KOMUNITARIOA SUSTATZEKO

Herritarren Partaidetzarako 5/2018 Foru Arauaren agindua da Aldundiak administrazioaren eta herritarren prestakuntza sustatzea, herritarren partaidetzarako eskubidearen subjektuek prestakuntza hobea izan dezaten

Norabide horretan, Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritzak **Gipuzkoako Eskola Irekia (GEI)** abian jarri du:

- **Eragile desberdinen aukerak areagotu eta gaitasunak hobetzeko baliabideak eskaini nahi dituelako**, azken batean, horiek gobernantza publikoan hartzen diren erabakietan duten eragin ahalmena handitu eta politika publikoak hobetzeko helburuarekin.
- **Demokraziaren kalitatea eta gizarte-kohesioa hobetzeko bitarteko izan daitekeelako.**

Programa honetan apustua egin nahi da GEI egonkortu, eskaintza zabaldu eta eragile gehiagoren erreferentzia bihur dadin.

Zeharkako helburu hau gauzatzeko, **eremu hauetan** eragingo da:

Kontzeptualizazioan, herritarren partaidetza eta garapen komunitarioa ulertzeko modua eta zentzua jasoz. **Elkarrizketa publikoa ahalbidetzean**, demokraziaren dimentsio deliberatiboan sakonduz. **Trebakuntza eskaintzean**, gaitasunak garatu eta ezagutzan sakonduz. **Esperimentatzean**, elkarlanerako, negoziatorako, eztabaidarako zein akordiorako beharrezkoak diren jarrera eta metodoak probatuz. **Sistematizatzean**, esperientziak eta praktika onak jasoz. **Saretzean**, eragile ezberdinen arteko aliantzak eta konplizitateak ehunduz, aniztasuna aintzat hartuz.

Laugarren helburua gauzatzeko, honako **2 lan-ildo** identifikatu ditugu:

4.1

Partaidetza kultural sakontzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea: kontzeptualizazioa garatzea, elkarrizketa publikoa ahalbidetzea, trebatzea, esperimentatzea, sistematizatzea eta saretzea.

4.2

Ekintza komunitarioa sustatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea: kontzeptualizazioa garatzea, elkarrizketa publikoa ahalbidetzea, trebatzea, esperimentatzea, sistematizatzea eta saretzea.

HELBURUAK ETA LAN-ILDOAK

KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIOA EGITEA, PARTAIDETZA KULTURA ETA EKINTZA KOMUNITARIOA SUSTATZEKO

Programaren zutabe diren ekintza komunitariorako eta herritarren partaidetzarako dauden **aukerak eta bideak ezagutzera ematea** beharrezko ikusi da; bereziki, herritarren eskubideak ezagutaraztea, gobernantzari lotutako kontzeptu abstraktuak argitzea edota horiek ulergarriak egitea, bai Aldundi barruan, eta baita bestelako erakunde eta herritarrei begira ere.

Sozializazioan eta komunikazioan urrats esanguratsuak eman ahal izateko, zeharkako helburu gisa jaso dugu programa honetan dibulgazioa eta komunikazioa eta, horretarako, **Zuzendaritzako Komunikazio Plan bat** onartuko da legegintzaldi hasieran **eta lurraldeko esperientzia eta ezagutzak ikusgarri eta eskuragarri** jartzean egingo da ahalegina. Komunikazio Planak **publiko-xede nagusiak** jomugan izango ditu eta bakoitzari dagozkion eduki eta baliabideak eskaintzearekin batera, **elkarren arteko harremana eta lankidetzak** indartzeko aukerak ezagutzera emango dira, lankidetzazko gobernantzaren aterkipean.

Gainera, aipaturiko publiko-xede bakoitzera iristeko, Gobernu Oheko Zuzendaritzak eratuak dituen, eta eraginkorrak eta seguruak diren, kanpora begirako **partaidetza egitura iraunkorrak** –Herritarren Partaidetzako Foru Batzordea, Gizarte Kontseilua, Erakundeen arteko Espazioa eta Elkarten Foroa– baliatuko eta lehenetsiko ditugu.

Bostgarren helburua gauzatzeko, honako **2 lan-ildo** identifikatu ditugu:

5.1

Zuzendaritzako Komunikazio Plana egitea eta abiatzea, publiko xede guztientzat eta bakoitzarentzat eduki irakurterrazak eta irisgarriak sortuz.

5.2

Lurraldeko esperientzia eta ezagutzak ikusgarri eta eskuragarri jartzea.



LAN-ILDOAK GARATZEKO EKINTZAK

Jarraian 2023-2027 legegaldian garatu nahi diren **47 ekintza** biltzen dira. Ekintza horiek **Herritarren Partaidetzarako Programaren** funtsa dira, programak ezartzen dituen helburuak eta lan-ildoak lortzea ahalbidetuko baitute. Izan ere, helburuak errealitate bihurtzeko ekintzak planifikatzea eta gauzatzea eskatzen du.

Urteroko Kudeaketa Planetan ekintza horiekiko azterketa eta ebaluaketa egingo da **eta legegintzaldiko urte bakoitzerako ekintza eta proiektu zehatzak** jasoko dira, lehentasunak eta egokitzapenak eginez.

LURRALDEAN EKINTZA KOMUNITARIOA INDARTZEA

LAN-ILDOAK

EKINTZAK

1.1

Elkarteen proiektuak eta **herritar antolatuen** gaitasunak indartzea.

- 1.1.1. **Elkartegintza** laguntzeko estrategia, tresna eta baliabideak garatu.
- 1.1.2. **Proiektu asoziatibo**en balio eta kudeaketa demokratikoa indartzeko **tresnak** eskaini.
- 1.1.3. **Lankidetz**a publiko-komunitarioa garatu eta elkarte eta erakunde publikoen arteko loturak indartu.
- 1.1.4. Herritar antolatuek partaidetza-kanalen **eragile, sustatzaile eta dinamizatzaile** izateko duten **gaitasuna handitzeko** baliabideak eman.

1.2

Antolatu gabeko herritarrekin eta **herritarrentzat** lan egitea.

- 1.2.1. Herritarren arteko **harremanak, loturak eta ekintza kolektiborako aukerak** errazteko **testuinguruak ahalbidetu**, zerbitzu, proiektu, espazio edo jardueren bidez.
- 1.2.2. **Zerbitzu publikoek eta hurbiltasuneko ekipamenduek antolatu gabeko herritarrengana iristeko duten ahalmena ikusgarri** egiteko lan egin, praktikak ikusarazi, baliabideak sistematizatu eta eskaini.
- 1.2.3. Ekipamendu publikoen **ko-kudeaketa edota herritarren ekimenak** (auzolana, etab.) zabaltea erraztuko duten **ikuspegi juridikoa** zabalteko formulak bilatu eta zabaldu.

LAN-ILDOAK

EKINTZAK

1.3

Ekintza komunitarioaren **markoa** garatzen jarraitzea eta toki mailan garatzeko **estrategiak** martxan jartzea.

- 1.3.1. Ekintza komunitarioaren **markoa udal**etara **eramateko** gogoetak sustatu eta udal ezberdinen bereizgarrietara egokitu.
- 1.3.2. Ekintza komunitarioa sustatzeko **estrategietan praktikak** sakondu, sustatu, partekatu eta sistematizatu.
- 1.3.3. Udal mailako **zerbitzu eta ekipamenduen diseinuan ikuspegi komunitarioa** txertatzen lagundu.
- 1.3.4. Lurralde oreka zainduz, **komunitatea indartzeko proiektuak** zuzenean bultzatu, udalek proiektu horiekin bat egiteko aukera izan dezaten.
- 1.3.5. **Udalez gaindiko ikuspegia** eskaini, udalen arteko aliantza, estrategia eta baliabideak partekatze, bereziki herri txikiak indartuz.

1.4

Politika sektorialetan **ikuspegi komunitarioa** txertatzea, eta marko zehatzak sortzea.

- 1.4.1. Aldundiko **departamentuekin elkarlanerako espazioak** sortu, haien politiketan ikuspegi komunitarioa barneratu dezaten.

1.5

Erakunde barruko eta erakunde arteko **aliantzak** koproduzitzea eta eratzea.

- 1.5.1. Aldundi barruan eta lurraldeko erakunde eta eragileekin **begirada eta hizkuntza partekatze lan egin, proiektu zehatzen bitartez.**

ERAKUNDEAK PRESTATZEA ETA LURRALDEAN PRAKTIKA PARTE HARTZAILEAK ZABALTZEA

LAN-ILDOAK

EKINTZAK

2.1

Aldundiko **partaidetzaren araudi-markoa** garatzen jarraitzea.

- 2.1.1. **Herritarren partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Arauaren kanpo ebaluazioa** burutu eta egokitzapenak egin.
- 2.1.2. **Herritarren partaidetzarako araudia** garatu eta prozedura egin.
- 2.1.3. **Herritarren Partaidetza Programa** egin, bere jarraipena, hedapena eta ebaluazioa eginez.

2.2

Herritarren parte hartzea **ahalbidetzeko**: prozedura, prozesu, organo, foro eta jarduerak **berrikustea eta berme-sistemak** diseinatzea.

- 2.2.1. **Herritarren ekimena** eta parte hartzearen aktibazioa erraztu.
- 2.2.2. **Parte-hartzeko kanalak** antolatu eta garatu.
- 2.2.3. **Estrategia eta metodologietan** sakondu, herritarren partaidetza Aldundiaren politika publikoetan txertatzen jarraitzeko.
- 2.2.4. Aldundiko departamentu-zuzendaritza eta zerbitzuekin lan egin, hizkuntza eta **begirada partekatua** izateko.

LAN-ILDOAK

EKINTZAK

2.3

Aldundiko politika publikoetan herritarren partaidetza praktikak egaritzea.

- 2.3.1. **Aurrekontu irekiak** birdefinitu eta sustatu.
- 2.3.2. **Aldundiko politiketan** herritarren partaidetza eta herritarren ikuspegia txertatu. (Departamentuekin legegintzaldi hasieran egin den barne-prozesuan jasotako emaitzak eta departamentuetako egitasmo eta ekintzen jarraipena eta garapena).
- 2.3.3. **Laguntza tekniko, ekonomiko eta aholkularitza** eskaini esperientziak areagotzeko eta dibertsifikatzeko.

2.4

Lurraldeko udalekin batera, udaletan **partaidetza egituratzeko** lan egitea.

- 2.4.1. **Udalerrietan LILE garatzeko** betebeharra ezagutarazi eta baliabideak eskaini.
- 2.4.2. **Udalekin elkarlanean** garatutako legegintzaldirako plangintza estrategikoa garatu, urteroko jarduera-planen bitartez.
- 2.4.3. **Udalei laguntza tekniko, ekonomiko eta aholkularitza** eskaini.
- 2.4.4. Gipuzkoako **2.500 biztanletik beherako udalerriei** zuzendutako estrategia zehatza garatu.

PARTAIDETZAREN KALITATEAN SAKONTZEA

LAN-ILDOAK

EKINTZAK

3.1

Lurraldeko **kalitate demokratikoa** indartzeko lan egitea.

- 3.1.1. Politika publikoak modu parte hartzailean garatzen direla bermatzeko **ebaluazio sistemak** diseinatu eta garatu. Partaidetza esperientzien emaitza eta inpaktuak neurtu eta komunikatu.
- 3.1.2. Politika publikoak modu parte hartzailean garatzeko **aniztasuna kudeatu** eta parte hartzeko dauden oztopoak gainditzeko estrategiak landu.
- 3.1.3. **Gizarte Kontseiluaren gomendioetan** oinarrituta, kalitate demokratikoa indartzeko lan egin.
- 3.1.4. **Berrikuntza eta ikerketa sozialerako laborategiak** sustatu, herritarren zientzian oinarrituta.

3.2

Aliantza eta sareak zaintzea, indartzea eta berriak eraikitzea kalitate demokratikoa hobetzeko.

- 3.2.1. Aldundiaren **partaidetza egitura iraunkorrak** –Herritarren Partaidetzako Foru Batzordea, Gizarte Kontseilua, Erakunde arteko Espazioa eta Elkarteen Foroa– kudeatu, elikatu eta zaindu, elkarrekin lan egiteko baliagarriak diren adostasunak eraikiz.
- 3.2.2. Partaidetzarako **elkarlana eta sare lana** zaindu eta zabaldu eragileekin, nazioartean eta maila anitzeko gobernantzan.
- 3.2.3. **Gertuko harremanak eta elkarlanerako dinamikak zaindu** eta sustatu, egiteko moduetan arreta jarritz.

TREBAKUNTZA ESKAINTZEA GIPUZKOAKO ESKOLA IREKIAREN BIDEZ PARTAIDETZA KULTURA ETA EKINTZA KOMUNITARIOA SUSTATZEKO (GEI)

LAN-ILDOAK

EKINTZAK

4.1

Partaidetza kulturaren sakontzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea: kontzeptualizazioa garatzea, elkarrizketa publikoa ahalbidetzea, trebatzea, esperimintatzea, sistematizatzea eta saretzea.

- 4.1.1. Aldundiarentzat, udalarentzat, elkarreentzat eta herritarrentzat urteko **prestakuntza eskaintza** diseinatu eta eskaini.
- 4.1.2. Partaidetza kultura praktikara ekartzeko, **espazioak sortu eta gidak zein baliabideak eskaini.**
- 4.1.3. Udako ikastaroetan metodologia parte hartzaileak txertatu, UIK Topagune hitzarmenaren baitan.

4.2

Ekintza komunitarioa sustatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea: kontzeptualizazioa garatzea, elkarrizketa publikoa ahalbidetzea, trebatzea, esperimintatzea, sistematizatzea eta saretzea.

- 4.2.1. Aldundiarentzat, udalarentzat, elkarreentzat eta herritarrentzat urteko **prestakuntza eskaintza** diseinatu eta eskaini.
- 4.2.2. Ekintza komunitarioa lurreratzeko **espazioak sortu eta gidak zein baliabideak eskaini.**

ZEHARKAKO HELBURUA

KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIOA EGITEA, PARTAIDETZA KULTURA ETA EKINTZA KOMUNITARIOA SUSTATZEKO

LAN-ILDOAK

EKINTZAK

5.1

Zuzendaritzako Komunikazio Plana egitea eta abiatzea, publiko xede guztientzat eta bakoitzarentzat eduki irakurterrazak eta irisgarriak sortuz.

- 5.1.1. **Zuzendaritza ezagutzera eman**, Aldundi barruan eta kanpoan eta, horretarako, **informazio esanguratsuena** eguneratuta eta eskuragarri eskaini, bai aurrez aurreko arretan eta baita modu digitalean ere.
- 5.1.2. Aldundiaren **partaidetza egitura iraunkorretatik egindako gomendioak eta praktika onak** zabaldu eta balioan jarri: Herritarren Partaidetzako Foru Batzordea, Gizarte Kontseilua, Erakunde arteko Espazioa eta Elkarleen Foroa.
- 5.1.3. **Herritarrek partaidetzarako duten eskubidea** zabaldu.
- 5.1.4. Aldundiak politika publikoetan hartzen dituen **erabaki garrantzitsuen berri** eman.
- 5.1.5. Aldundiak herritarrei eta elkarteei zuzendutako informazioa modu **ulerterrean eta irisgarrian** eman.

5.2

Lurraldeko esperientzia eta ezagutzak ikusgarri eta eskuragarri jartzea

- 5.2.1. Herritarren partaidetzan eta ekintza komunitarioan lurraldean izan diren **praktika onak** jaso eta zabaldu, gidak sozializatuz eta **Geolokalizazio Mapa** elikatuz eta zabalduz.
- 5.2.2. Lurraldeko esperientzien datuak eta ezaugarritzea bilduko duen **data basea** diseinatu eta garatu.

ALDUNDIKO DEPARTAMENTUEK PROPOSATUTAKO PARTAIDETZA PROIEKTUAK

Legegintzaldian Aldundiko departamentu bakoitzak herritarren partaidetza eta herritarren ikuspegia barneratzea aurreikusten dituen proiektuak jasotzen dira atal honetan.

Proiektu horien bidez **Aldundiko politika publikoetan herritarren partaidetza praktikak ugaritzea ahalbidetzen da.**

Zehazki, programa honen 2.3. lan-ildoaren baitako 2.3.2. ekintzari erantzuten diete.



ALDUNDIKO DEPARTAMENTUEK PROPOSATUTAKO PARTAIDETZA PROIEKTUAK

DEPARTAMENTUA	ZUZENDARITZA/ZERBITZUA	PROIEKTUAREN IZENA	EPEALDIA
DIPUTATU NAGUSIA	Estrategia Zuzendaritza Nagusia	Lankidetzazko gobernantzari buruzko gogoeta partekatua Aldundian	2024
		Etorkizuna Eraikiz Think Tank berria	2024
	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa	Berdintasunerako 4. Foru Plana	2024
		GUNEA Espazioan, Berdinasunaren aldeko Gipuzkoako emakume elkarteekin Partaidetza prozesuak	2024
	Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia	BADALAB	2024-2025
		GIPUZKOA ARIGUNE Proiektu estrategikoa	2024-2025
ZAINKETA ETA GIZARTE POLIKIKETAKO DEPARTAMENTUA	Agenda, Berrikuntza eta Ebaluazioa	Kasu Konplexuak pertsonalizatzeko eta artatzeko Zeharkako Batzorde Teknikoa abian jartzeko prozesu parte-hartzailea	2024-2025
		Modernizazio, Digitalizazio eta Hobekuntzako Zeharkako Batzorde Teknikoa abian jartzeko barne-prozesu parte-hartzailea	2024-2025

ALDUNDIKO DEPARTAMENTUEK PROPOSATUTAKO PARTAIDETZA PROIEKTUAK

DEPARTAMENTUA	ZUZENDARITZA/ZERBITZUA	PROIEKTUAREN IZENA	EPEALDIA
GOBERNANTZA	Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia	Enpresa txiki eta ertainen kontrataziorako laguntza zerbitzua	2025
	Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua	Foru Arauaren ebaluazioa	2024-2025
		Aurrekontu Irekiak Aldundian bir-diseinatzeko eta abiatzeko prozesua	2024-2025
		IDEIAK, Mugaz gaindiko proiektuak sustatzeko prozesua	2024-2025
	Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza	Plan Estrategikoaren garapena	2024
MUGIKORTASUNA, TURISMOA ETA LURRALDE ANTOLAKETA	Mugikortasuna eta Garraio Publikoko Zuzendaritza	Garraio Publikoaren emakidak berritzea	2024
		Lurraldebus inkesta	2025
	Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia	Lurralde planak: Goierri eta Urola	2024
		Ondarearen 1996ko araua aldatu: <i>Uztailaren 9ko 8/96 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Ondarearena</i>	2026
	Aldundiak behar ez duen ondarea egoki kudeatzeko foroak	2024	

ALDUNDIKO DEPARTAMENTUEK PROPOSATUTAKO PARTAIDETZA PROIEKTUAK

DEPARTAMENTUA	ZUZENDARITZA/ZERBITZUA	PROIEKTUAREN IZENA	EPEALDIA
LURRALDE OREKA BERDEA	Nekazaritzako eta Lurralde Oreako Zuzendaritza Nagusia	OB GUNEA (Oreka Berdeko Erreferentzia Gunea)	2024
		Aholku Batzorde ezberdinen azterketa eta bateratzea	2024
		Baserritar Misto Profesionala	2024-2027
		Gipuzkoako Herritarren Batzarra: kontu-ematea eta ebaluazioa	2024-2027
		Mugikortasun autonomoa pilotua landa-eremuan	2024
KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROLA	Kultura Zuzendaritza Nagusia	Kultura Eskola Programaren balorazioa	2024
	Gazteria Zuzendaritza Nagusia	Gazte Plaza txo!	2024-2027
		Gaztematika sarea	2024-2027
	Kirol Zuzendaritza Nagusia	Jatorri anitzeko emakueen gizarte-inklusioa jarduera fisiko edo kirolaren bidez sustatzeko esku-hartzeen printzipioen dekalogo	2024
		Gipuzkoako Eskola Kirola Programa	2024-2025
		Gipuzkoako eskola adineko jarduera fisikoari eta kirolari buruzko Foru Dekretua egiteko partaidetza prozesua	2025
		Mugimint Gipuzkoa	2024-2026
		Eskola Kirola Inklusibo (EKI) eta Eskola Kirola Egokitua (EKE)	2024-2025

PROGRAMAREN EBALUAZIOA ETA KONTU-EMATEA



Ebaluazio eta kontu-emate sistema sistema 2024-2027 Herritarren Partaidetzarako Programaren funtsezko osagaia da, eta ezarritako helburuak eta proposatutako jarduerak betetzen direla ziurtatzera bideratuta dago, ikuspegi sistemiko batetik.

Programaren **EBALUAZIO**ari dagokionez, gure zuzendaritzak ezarria du programaren helburuak betetzeko bidean egindako aurrerapena neurtzeko jarraipen sistema. Hala, Partaidetza Programa zuzendaritzaren helburuak lortzeko ibilbide-orria da eta horretarako 5 helburu eta 15 lan-ildo eta 47 ekintza zehaztu ditu.

Programa hau abiapuntu hartuta, zuzendaritzak **urtez urteko kudeaketa** planak onartuko ditu, zehaztu diren lan-ildo horiei erantzungo dieten ekintza zehatzen bidez. Urteko kudeaketa planetan jasoko diren ekintza zehatzei **hiru lehentasun maila** ezarriko zaizkie: estrategikoak direnak, garrantzi handikoak direnak eta erdi-mailako garrantzia dutenak. Bestalde, ekintza horien betetze mailaren jarraipena egiteko datu **kantitatiboak eta kualitatiboak** baliatuko dira, Aldundiko **zeharkako ardatzen** (genero berdintasuna, hizkuntza berdintasuna eta Garapen Jasangarrien Helburuak) betetze mailari ere arreta jarritz. Horrez gain, urteko ekintza horiek **abiapuntu eta helmugako adierazleak** zehaztuta izango dituzte, jarraipena modu eraginkorrean eta neurgarrian egin ahal izateko. Adierazle horiek ez dira soilik kontu-emate baterako baliatuko, izan ere, baliagarriak izango dira, behar izanez gero, kudeaketa plan horien egokitzapena egiteko; hau da, **kudeaketarako erreminta** ere izango dira. Bide horretan, eta aldaketaren teoriar oinarrituta, arreta berezia jarriko dugu **ikasten duen zuzendaritza** bat gairela neurtzeko adierazleetan.

Halaber, etengabeko **KONTU-EMATEA** egingo dugu planifikatutako ekintzen betetze-maila modu sistematikoa eta erregulartasunez neurtzeko. Horregatik, **urteroko kontu-emateak** burutuko ditugu beste eragile batzuekin elkarlanean, hala nola Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluaren eta Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordearen eskutik eta horren emaitza **urtez urteko partaidetza memoriak** izango dira, 5/2018 Foru Arauaren 7. artikulua eta 36. artikulua ezarritakoa betez.

Foru arau honen 37-39 artikuluetan jasotzen den gisan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko **Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua** da partaidetza arloan Aldundiak egiten duen lanaren inguruan bere ekarpenak egiten eta aholkuak ematen dituen organoa. Aholku-emaile den organo horrek ezarritako iparra eta helburuak bideratzen, neurtzen eta hobekuntzak identifikatzen laguntzen digu. Programaren egikaritzarako beste kontrol organo nagusia, Foru Arauaren 40-43 artikuluetan jasotzen den **Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea** da, zein Aldundiko zuzendaritza politikoei osatzen duten koordinazio gunea den.

Beraz, gure egiteko moduekin jarraituz, **programaren ebaluazioa** eta **partaidetza memoriak modu partehartzailean** burutuko dira. Hala, interesa duten eragile guztiek -parte-hartzaile eta bestelako interes-talde batzuk barne-, programa honetan ezarri ditugun helburu, lan-ildo eta ekintzak nola burutzen ditugun eta baliabideak nola erabiltzen ditugun jakiteko informazioa eskura izatea bermatzen da. Izan ere, **gardentasuna** funtsezkoa da guretzat eragile guztien arteko konfiantza eraikitze eta mantentzeko.

Burutuko ditugun ebaluazio eta kontu-emate mekanismo horiek guztiak beharrezko zaizkigu programaren garapenean **plangintza doitzeko, prozesuak hobetzeko eta denboran zehar ekintzak fintzeko.**

EGUTEGIA ETA LEHENTASUNAK

EGUTEGIA ETA LEHENTASUNAK

Programaren azken atal honetan, batetik, **legegintzaldiko lan-ildo eta ekintza bakoitza garatzeko aurreikusi den epeldia zehazten da**. Josotzen diren 47 ekintzatetatik batzuk, garapen jarraia izango dute urtez urte; beste batzuk, aldiz, urte jakin batzuetan burutzeko aurreikuspena dute. Urtero egingo diren kudeaketa planen bidez egingo da jarraipena.

Bestetik, Programako bost helburuak lortzeko, **ekintzen lehentasun mailak jasotzen dira**. Hala, **hiru lehentasun maila** bereizi dira: 1 zenbakiarekin, estrategikoak direnak eta lehentasun maila altua dutenak; 2 zenbakiarekin, garrantzi handikoak direnak eta lehentasun maila erdi-altua dutenak; eta 3 zenbakiarekin, erdi-mailako garrantzia dutenak eta lehentasun maila erdi-baxua dutenak. Ondorengo taulan, programako helburuen lehentasun mailak ikus daitezke.

PROGRAMAREN HELBURUAK	LEHENTASUN MAILA		
	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA
1. HELBURUA: EKINTZA KOMUNITARIOA	7 EKINTZA	5 EKINTZA	2 EKINTZA
2. HELBURUA: ERAKUNDEAK PRESTATZEA	9 EKINTZA	5 EKINTZA	0 EKINTZA
3. HELBURUA: PARTAIDETZAREN KALITATEA	3 EKINTZA	2 EKINTZA	2 EKINTZA
4. HELBURUA: TREBAKUNTZA	4 EKINTZA	1 EKINTZA	0 EKINTZA
5. HELBURUA: KOMUNIKAZIOA	3 EKINTZA	2 EKINTZA	2 EKINTZA

HELBURU ESTRATEGIKOA: LURRALDEAN EKINTZA KOMUNITARIOA INDARTZEA

LAN-ILDOAK	EKINTZAK	LEHENTA-SUNA	2024	2025	2026	2027
1.1. Elkarteen proiektuak eta herritar antolatuen gaitasunak indartzea.	1.1.1. Elkartegintza laguntzeko estrategia, tresna eta baliabideak garatu.	1	████████████████████			
	1.1.2. Proiektu asoziatibo en balio eta kudeaketa demokratikoa indartzeko tresnak eskaini.	3			██████████	
	1.1.3. Lankidetz a publiko-komunitarioa garatu eta elkarre erakunde publikoen arteko loturak indartu.	2	████████████████████			
	1.1.4. Herritar antolatuek partaidetza-kanalen eragile, sustatzaile eta dinamizatzaile izateko duten gaitasuna handitze ko baliabideak eman.	2	████████████████████			
1.2. Antolatu gabeko herritarrekin eta herritarrentzat lan egitea.	1.2.1. Herritarren arteko harremanak, loturak eta ekintza kolektiborako aukerak errazteko testuinguruak ahalbidetzea , zerbitzu, proiektu, espazio edo jardueren bidez.	3			██████████	
	1.2.2. Zerbitzu publikoek eta hurbiltasuneko ekipamenduek antolatu gabeko herritarrengana iristeko duten ahalmena ikusgarri egiteko lan egin, praktikak ikusarazi, baliabideak sistematizatu eta eskaini.	1	████████████████████			
	1.2.3. Ekipamendu publikoen ko-kudeaketa edota herritarren ekimenak (auzolana, etab.) zabalitzea erraztuko duten ikuspegi juridikoa zabalitzea formulak bilatu eta zabaldu.	2		████████████████████		

HELBURU ESTRATEGIKOA: LURRALDEAN EKINTZA KOMUNITARIOA INDARTZEA

LAN-ILDOAK	EKINTZAK	LEHENTA-SUNA	2024	2025	2026	2027
1.3. Ekintza komunitarioaren markoa garatzen jarraitzea eta toki mailan garatzeko estrategiak martxan jarzea.	1.3.1. Ekintza komunitarioaren markoa udaletara eramateko gogoetak sustatu eta udal ezberdinen bereizgarrietara egokitu.	1	████████████████████			
	1.3.2. Ekintza komunitarioa sustatzeko estrategietan praktikak sakondu, sustatu, partekatu eta sistematizatu.	1		████████████████████		
	1.3.3. Udal mailako zerbitzu eta ekipamenduen diseinuan ikuspegi komunitarioa txertatzen lagundu.	1	████████████████████			
	1.3.4. Lurralde oreka zainduz, komunitatea indartzeko proiektuak zuzenean bultzatu, udalek proiektu horiekin bat egiteko aukera izan dezaten.	2		████████████████████		
	1.3.5. Udalez gairako ikuspegi eskaini , udalen arteko aliantza, estrategia eta baliabideak partekatze, bereziki herri txikiak indartuz.	1		████████████████████		
1.4. Politika sektorialetan ikuspegi komunitarioa txertatzea, eta marko zehatzak sortzea.	1.4.1 Aldundiko departamentu ezberdinekin elkarlanerako espazioak sortu , haien politiketan ikuspegi komunitarioa barneratu dezaten.	1	████████████████████			
1.5. Erakunde barruko eta erakunde arteko aliantzak koproduzitzea eta eratzea.	1.5.1. Aldundi barruan eta lurraldeko erakunde eta eragileekin begirada eta hizkuntza partekatze lan egin, proiektu zehatzen bitartez.	2		████████████████████		

HELBURU ESTRATEGIKOA: ERAKUNDEAK PRESTATZEA ETA LURRALDEAN PRAKTIKA PARTE HARTZAILEAK ZABALTZEA

LAN-ILDOAK	EKINTZAK	LEHENTA-SUNA	2024	2025	2026	2027
2.1. Aldundiko Partaidetzaren araudi-markoa garatzen jarraitzea.	2.1.1. Herritarren partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Arauaren kanpo ebaluazioa burutu eta egokitzapenak egin.	1				
	2.1.2. Herritarren partaidetzarako araudia garatu eta prozedura egin.	2				
	2.1.3. Herritarren Partaidetza Programa egin, bere jarraipena, hedapena eta ebaluazioa eginez.	1				
2.2. Herritarren parte hartzea ahalbidetzeko: prozedura, prozesu, organo, foro eta jarduerak berrikustea eta berme sistemak diseinatzea.	2.2.1. Herritarren ekimena eta parte hartzearen aktibazioa erraztu.	2				
	2.2.2. Parte-hartzeko kanalak antolatu eta garatu.	2				
	2.2.3. Estrategia eta metodologietan sakondu, Aldundian herritarren partaidetza politika publikoetan txertatzen jarraitzeko.	1				
	2.2.4. Aldundiko departamentu-zuzendaritza eta zerbitzuekin lan egin, hizkuntza eta begirada partekatua izateko.	2				

HELBURU ESTRATEGIKOA: ERAKUNDEAK PRESTATZEA ETA LURRALDEAN PRAKTIKA PARTE HARTZAILEAK ZABALTZEA

LAN-ILDOAK	EKINTZAK	LEHENTA-SUNA	2024	2025	2026	2027
2.3. Aldundiko politika publikoetan herritarren partaidetza praktikak ugaritzea.	2.3.1. Aurrekontu irekiak birdefinitu eta sustatu.	1				
	2.3.2. Aldundiko politikean herritarren partaidetza eta herritarren ikuspegia txertatu.	1				
	2.3.3. Laguntza tekniko, ekonomiko eta prestakuntza eskaini esperientziak areagotzeko eta dibertsifikatzeko.	1				
2.4. Lurraldeko udalekin batera, udaletan partaidetza egituratzeko lan egitea.	2.4.1. Udalerrietan LILE garatzeko betebeharrak ezagutarazi eta baliabideak eskaini.	2				
	2.4.2. Udalekin elkarlanean garatutako legegintzaldirako plangintza estrategikoa garatu, urteroko jardueraren bitartez.	1				
	2.4.3. Udalei laguntza tekniko, ekonomikoa eta prestakuntza eskaini.	1				
	2.4.4. Gipuzkoako 2.500 biztanletik beherako udalerri zuzendutako estrategia zehatza garatu.	1				

HELBURU ESTRATEGIKOA: PARTAIDETZAREN KALITATEAN SAKONTZEA

LAN-ILDOAK	EKINTZAK	LEHENTA-SUNA	2024	2025	2026	2027
3.1. Lurraldeko kalitate demokratikoa indartzeko lan egitea.	3.1.1. Politika publikoak modu parte hartzailean garatzen direla bermatzeko ebaluazio sistemak diseinatu eta garatu. Partaidetza esperientzien emaitza eta inpaktuak neurtu eta komunikatu.	3				
	3.1.2. Politika publikoak modu parte hartzailean garatzeko aniztasuna kudeatu eta parte hartzeko dauden oztopoak gainditzeko estrategiak landu.	2				
	3.1.3. Gizarte Kontseiluaren gomendio etan oinarrituta kalitate demokratikoa indartzeko lan egin.	1				
	3.1.4. Berrikuntza eta ikerketa sozialerako laborategiak sustatu, herritarren zientzian oinarrituta.	3				
3.2. Aliantza eta sareak zaintzea, indartzea eta berriak eraikitzea kalitate demokratikoa hobetzeko..	3.2.1. Aldundiaren partaidetza egitura iraunkorrak kudeatu, elikatu eta zaindu, elkarrekin lan egiteko baliagarriak diren adostasunak eraikiz.	1				
	3.2.2. Partaidetzarako elkarlana eta sare lana zaindu eta zabaltu eragileekin, nazioartean eta maila anitzeko gobernantzan.	2				
	3.2.3. Gertuko harremanak eta elkarlanerako dinamikak zaindu eta sustatu, egiteko moduetan arreta jarritz.	1				

ZEHARKAKO HELBURUA: TREBAKUNTZA ESKAINTZEA GIPUZKOAKO ESKOLA IREKIAREN BIDEZ (GEI)

LAN-ILDOAK	EKINTZAK	LEHENTA-SUNA	2024	2025	2026	2027
4.1. Partaidetza kultural sakontzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea: kontzeptualizazioa garatzea, elkarrizketa publikoa ahalbidetzea, elkarrekin lan egiteko baliabideak eskaintzea, esperientziak partekatu eta sistematizatu.	4.1.1. Aldundiarentzat, udalarentzat, elkartegintza eta herritarrentzat urteko prestakuntza eskaintza diseinatu eta eskaini.	1				
	4.1.2. Partaidetza kultura praktikara ekartzeko, espazioak sortu eta gidak zein baliabideak eskaini.	1				
	4.1.3. Udako ikastaroetan metodologia parte hartzaileak txertatu , UIK Topagune hitzarmenaren baitan.	2				
4.2. Ekintza komunitarioa sustatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea: kontzeptualizazioa garatzea, elkarrizketa publikoa ahalbidetzea, elkarrekin lan egiteko baliabideak eskaintzea, esperientziak partekatu eta sistematizatu.	4.2.1. Aldundiarentzat, udalarentzat, elkartegintza eta herritarrentzat urteko prestakuntza eskaintza diseinatu eta eskaini.	1				
	4.2.2. Ekintza komunitarioa lurreratzeko espazioak sortu eta gidak zein baliabideak eskaini.	1				

ZEHARKAKO HELBURUA: KOMUNIKAZIOA ETA DIBULGAZIOA EGITEA, PARTAIDETZA KULTURA ETA EKINTZA KOMUNITARIOA SUSTATZEKO

LAN-ILDOAK	EKINTZAK	LEHENTA-SUNA	2024	2025	2026	2027
5.1. Zuzendaritzako Komunikazio Plana egitea eta abiatzea , publiko xede guztientzat eta bakoitzarentzat eduki irakurterrazak eta irisgarriak sortuz	5.1.1. Zuzendaritza ezagutzera eman , Aldundi barruan eta kanpoan eta, horretarako, informazio esanguratsuena eguneratuta eta eskuragarri eskaini, bai aurrez aurreko arretan eta baita modu digitalean ere.	1	█			
	5.1.2. Aldundiaren partaidetza egitura iraunkorretatik egindako gomendioak eta praktika onak zabaldu eta balioan jarri: Herritarren Partaidetzako Foru Batzordea, Gizarte Kontseilua, Erakunde arteko Espazioa eta Elkarleen Foroa.	1	█	█	█	█
	5.1.3. Herritarrek partaidetzarako dituzten eskubideak zabaldu.	2			█	█
	5.1.4. Aldundiak politika publikoetan hartzen dituen erabaki garrantzitsuen berri eman.	3			█	█
	5.1.5. Aldundiak herritarrei eta elkartei zuzendutako informazioa modu ulerterrazean eta irisgarrian eman.	3		█	█	█
5.2. Lurraldeko esperientzia eta ezagutzak ikusgarri eta eskuragarri jartzea.	5.2.1. Herritarren partaidetzan eta ekintza komunitarioan lurraldean izan diren praktika onak jaso eta zabaldu, gidak sozializatuz eta Geolokalizazio Mapa elikatuz eta zabalduz.	1	█	█	█	█
	5.2.2. Lurraldeko esperientzien datuak eta ezaugarritzea bilduko duen data basea diseinatu eta garatu.	2	█			



